

LARUNBAT GAUEKO AUTOBUS ZERBITZUA

3.000 lagunetik gora ibili dira Hernani eta Donostia artean, sei larunbatetan

■ Jende gazteak ibiltzen du gehien zerbitzua ■ Sei hilabeteen egingo dute proba; erantzuna ona bada luzatu egingo dute zerbitzua.



Gizon bat Donostia alderako autobusera igotzen.

URRIAN larunbat gaueko autobus zerbitzua jarri zuten martxan zenbait konpainiak, Diputazioak bultzata. Gipuzkoako herri nagusiak lotzen ditu, eta kotxe istripuak gutxitzeko helburua du kanpaina honek. Diputazioko datuen arabera,

kotxe istripuen % 35, 18-25 urte arteko gazteek izaten dituzte, eta hauetatik asko aste-buruko ordu txikietan.

ERANTZUN ONA
Zerbitzua erantzun ona ari da izaten orokorrean, eta baita

Hernaniko kasuan ere. Dagoneko sei asteburu pasa dira, eta gero eta jende gehiagok hartzen du autobusa Hernanitik Donostiara eta Donostiatik Hernanira ibiltzeko. 3.000 lagunetik gora dira Garayar (urdinak) eta Areizagako (gorriak) autobusak hartu dituztenak. Diputazioan ere gustora daude zerbitzuak izan duen erantzunarekin.

Txoferrek bazuten beldurra jendeak mozkortuta zer joera aterako ote zuen, baina, orain arte, Hernaniko gidariek ez omen dute inongo arazorik izan jendearekin. Autobus geltokietan kotxeak aparkatuta egoten direla-eta keja da bi autobus konpainietakoak: ezin beren tokian sartuta autobusek bide erdian gelditu behar izaten dute, eta horrek arazoak sortzen ditu trafikokan.

ORDUBETERO ETA BERROGEI MINUTUERO
Larunbat gaueko autobus zerbitzua 23:00etatik 06:00etara-koa da. Areizagako autobusak 40 minutuero ateratzen dira eta Garayarkoak orduro. □

Kepa Pikabea preso hernaniarra Espainiara extraditatu dute

■ Atzo extraditatu zuten Frantziako 'Fresnes' espetxetik ■ Audientzia Nazionalean deklaratu beharko du orain, ETAko partaide izatearen akusaziopean ■ Frantzian 7 urte egon da preso, hainbat espetxeetan. □

'Kronika Pelota Txapelketa' bihar hasiko da

■ Bihar, larunbata, bi partidu jokatu dira: Aritz-Mikel / Joxe-Zelaia eta Tutu-Iturbe / Gorka-Arano ■ Tilosetan, 16:00etan.

HERNANIKO Kronikak esku pelota txapelketa antolatu du aurten ere. Zortzi bikotek hartuko dute parte. Ligila bat egingo da. Lehenengo bi bikoteek finala jokatu dute, eta hiru eta laugarren gelditzen direnek postu hoi-ek borrokatuko dituzte. □

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel: 943 550046
HERNANI

ADARRA
LAN TRESNAK, S. A.
Karmelo Labaka, 18
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
Tel. 943 555150-555154-Faxa 556110

Hamar sagardotegi bihar Xalapartako lehiaketan

■ ZORTZIGARREN sagardo lehiaketa dute bihar Xalaparta elkarteak. Hamar sagardogile eta elkarte bete juez izango dira, eta noski, punta puntako menua, zer bultzatua izateko. Akarregi, Alberro, Altzueta, Eizmendi, Elorrabi, Elutxeta, Eula, Otsuenea, Oiarbide eta Zelaia dira hamar sagardotegiak. Puntuazioa: inongo etiketa gabeko sagardoak egongo dira eta jendeak, edan ahala, 5etik 10erako puntuazioa emango dio sagardo bakoitzari. □

Igeriketa kurtsiloak 5 urtetik gorako umeentzat

■ KIROLDEGIAN igeriketa ikastaro berriak hastekotan dira, 5 urtetik gorako umeentzat. Izena kiroldegian bertan eman behar da datorren igandea baino lehen. Astelehenean zozketa egingo da izena eman duten guztien artean, eta hilaren 28a izango da ikastaroak ordaintzeko eguna. Ordaintzen ez duenak lekua galduko du. Informazio gehiagorako kiroldegitik pasa edo 943 552185 telefonora deitu. □

■ ERREMONTEA

Partidu gogorra atzo Gararretan, eta hirukotea nagusi

■ 40-36 irabazi zieten Zeberio II-Altuna I-Eizagirrek Ezkurra eta Lizasori.

PARTIDU ederra ikusi zuten atzo Galarreta leporaino bete zutenek. Jakinekoa zen, hirukoteak ondo jokatu, bikoteak zail izango zuela irabaztea, baina, gerra eman zuten. 36na berdinduta ere egon zen partidua. Gakoetako bat sakean egon zen Eizagirrek 8 tanto egin baitzituen eta Lizasok 3. □

'Torturaren aurkako mobilizazio eguna' deitu dute Gestorek gaurko

HERNANIN kontzentrazioa izango da gaur, 20:00etan Zinkoenean, tortura salatzeke.

BIHAR, BAIONAN
Bihar, bestalde, manifestazioa

antolatu dute Baionan, 17:00etan. Euskal Herrian Bizitzeko Eskubidearen alde lema izango du. 15:30etan autobusa aterako da Atsegindegitik. Txartelak Garin tabernan daude. □

David Alonso eta J. M. Duqueren kontzertua gaur Sandiusterrin


■ Saxofoi eta piano kontzertua izango da gaur Sandiusterrin, 19:00etan. David Alonso saxofoijole badajozdarrak eta David Alonso pinojole valentziarrak emango dute kontzertua. □

ITXASPE
ARRANDEGIA
Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

ELKERRO
FRUTAK
Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75
Antziola 1, HERNANI

Manuel Yaben 86 urteko soinu jole, pianista eta organistari omenaldia, gaur

■ Udalak omenduko du bizi osoko traiektoria musikagatik ■ Yaben “oso gustora” dago gaur jasoko duen omenaldiagatik ■ Udaletxeko Areto Nagusian, 20:00etan.



Manuel Yabenek oraindik ere lanean segitzen du.

UDALAK Manuel Yaben duan, Tomas Garbizu konpositorak akordeonista beterranoa omen- duko du gaur iluntzean. Yaben Hala ere, Yaben batez ere auto- gazterik hasi zen musika mun- didakta izan da gazte gazteta-

tik. Manuel Yaben berastegia- rra da sortzez. Emaztea du her- naniarra eta Hernanin bizi dira. Yaben soinuarekin mundu asko korritua da, baina Hernani izan du gustoko txokoa.

Herriak egingo dion ome- naldiagatik gustora dagoen gal- detuta, “Nola ez naiz ba gusto- ra egongo?” erantzun digu. Eta ez zaio umorerik falta Yaben jaunari: “Omenaldia, ia denek, hilda gero jasotzen dute eta nik bizirik jasoko det”, esan dio brometan Kronikari.

Omenaldian, txitulariak, soinu-joleak eta abarrez gain, Mertxe Etxeberria alkateak oroigarri bat emango dio musi- ko haundiari.

ELKARRIZKETA BIHAR
Kronikak Manuel Yabeni elka- rrizketa egin dio bere bizitza eta musika karrerari buruz. Bi- harko alean aterako da, larun- batean. □

UDAL INFORMATIKA ARETOA

‘Windows 98 + word’ ikasteko lekuak libre

■ Azaroaren 26tik 30era izango da ikastaroa, 16:00- etatik 20:00etara.



Informatika aretoan, herritarrek beren lanetan.

UDAL informatika Aretoa (IMIn), ordenagailuak herri- tarrentzat egoteaz gain, ikas- taroak izaten dira, jendea infor- matikan trebatzeko. Azaroko azken astean *windows 98 eta word* euskeraz ikasi nahi dutenek izango dute aukera. Izena emateko informatika are- tora deitu (943 551000) edo

bertatik pasa (Larramendi 11), gaur bertan, goizeko 09:00- etatik eguerdiko 14:00ak bi- tartean.

HAMALAU IKASTARO
Aurten dagoeneko hamalau ikastaro eman dituzte IMIn. Guztira 170 bat hernaniar tre- batu da informatikan. □

Zingi Zanga jatetxeak mus txapelketa hasiko du gaur

■ Datorren ostiralean hasiko da ■ Izen ematea osti- ralero egin behar da, 21:00ak baino lehen.

FLORIDAKO Zingi Zanga jatetxean mus txapelketa hasi- ko da gaur. Izen ematea astero egin behar da, eta sariak ere astero izango dituzte hiru bikote onenek. Abenduaren 21a arteko 10 muslari onenek ere izango dute saria: afaria abenduaren 28an.

PARTIDAK GAUEAN
Mus partidak gaueko 22:30- etan hasiko dira, baina, izen ematea gaueko 21:00ak baino lehen egin behar da Zingi Zanga jatetxean bertan. Bi- kote bakoitzak 1.200 pta ordaindu beharko ditu izen ematean. □


KIROLAK

ESKOLARTEKO KIROLA

HOCKEYA	TALDEAK	NON	NOIZ	SASKIBALOIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Benjaminak	Langile A-Langile B	Kiroldegia	Bihar, 11:15	Alebinak. Neskak	Urumea-Larramendi	Kiroldegia	Bihar, 09:15
Benjaminak	Elizatzxo-Langile C	Kiroldegia	Bihar, 12:00	Alebinak. Neskak	Langile-Elizatzxo	Kiroldegia	Bihar, 10:15
ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak. Mutilak	Inmaculada-Herrera	Kiroldegia	Bihar, 10:15
Benjaminak	Elizatzxo B-Urumea	Kiroldegia	Bihar, 09:15	Alebinak. Mutilak	San Patricio-Langile A	Donostia	
Benjaminak	Elizatzxo A-Langile B	Kiroldegia	Bihar, 10:00	Alebinak. Mutilak	Oleta-Langile B	Donostia	
Benjaminak	Langile C-Langile A	Kiroldegia	Bihar, 10:45	Infantilak.	Langile-Loiola A	Kiroldegia	Gaur, 11:45
FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	Infantilak.	Hijas de la Cruz-Inmaculada	Donostia	
Infantilak	Urumea-San Benito	Zubipe	Bihar, 09:00	BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ
PELOTA	TALDEAK	NON	NOIZ	Alebinak	Murumendi-Elizatzxo	Andoain	
Alebinak	Langile C-Langile A	Kiroldegia	Bihar, 9:15	ESKUBALOIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Alebinak	Langile B-Elizatzxo B	Kiroldegia	Bihar, 9:30	Alebinak	Egape A-Elizatzxo A	Urnieta	
Alebinak	Urumea-Elizatzxo A	Kiroldegia	Bihar, 09:45	Alebinak	Elizatzxo B-Urumea	Urnieta	

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Zingi Zanga jatetxeko mus txapelketaren inguruan Ioritz Oseseekin 12:00: Holiday zirkoko parte artzaileekin hitz egingo dute 17:00: Kale Kantoian programa. Erlantz Urtaun historialariarekin sorginen inguruan ariko dira.



KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, **opariak ere lortu** ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako **sarrerren zozketan** parte hartu, eta **bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan** ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko. Gainera, **2002ko otsailaren 1a baino lehen** eskatu eta erabiltzen baduzu, **CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen** dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo www.kutxa.net helbidean.